

BORROKAK BATZEN MAIATZAK 27 ... KALERA

DUINTASUN
MARTYAK



Berriro ere kalera goaz maiatzaren 27an. Borrokak elkartu eta lotu

Ogia, lana, etxebizitza eta Berdintasuna

CGT-LKN, Klase Borrokaren Blokea, Duintasunaren aldeko Martxak, berriro ere Madrilgo kaleetara aterako gara maiatzaren 27an mugimendu hau hasieratik bildu duen lelo berberaren pean: Ogia, Lana, Etxebizitza eta Berdintasuna.

Askatasunak eta gehiengo sozialaren eskubideek kapitalismoa gogaitzen omen dute. Alde horretatik, pertsona gutxi batzuen onura pribatua bilatzen duen sistema bada eta, hala, delako sistemak kalkulazineko inguru eta gizarte hondamendira eramaten gaitu. Eta protestarik eginez gero? Beti erantzun berbera jaso izan dugu: gizarte eragileen eta benetako klase-sindikatuaren kontrako errepresioa eta kriminalizazioa. Errepresioa behar du bai ala bai kapitalismoak; "Mozal legea" bezalako araudia sortu beharrean da, euren estatusari eusteko. Gaingitu beharra dago, beraz, klase-sindikalgintzaren borroka. Egun, eskiroltzari eta greba egiteko eskubidea urratzeko, erregimenaren sindikatuak darabilten Itun-Soziala onartzeko edo okupatutako etxebizitza-kaleratzeen aldeko legeak beste kokka bat dira ibilbide honetan. Araudi horiek eskuak lotzen dizkigute baina, hala ere, herri eta langile borroka erantzun behar diegu.

Ustelkeriak jota dagoen sistema honek ez du legitimitaterik. Frankismoaren oinordeko diren kapitalistei, ustelkeriaz eta pribatizazioez aberastu direnak gehitu behar zaizkie. Hala, orokortu egin den ustelkeri horrek Dikatadurak eraikitako egitura guzti-guztiei eustearen alde egiten du borroka, inolako trabarik jaso gabe. Usteldutako erregimen honek helburu garbia du: gizarte borrokaren kontrako errepresioaz, lan-prekarietateaz, baita langile-klasearen gehiengoaren lepo bizi izatea, hain zizen ere.

- **Pentsio Publiko duinen defentsan, aurrekontu orokorretatik irtendakoak eta Toledoko Itunari ezetz esanez**
- **Lanpostu egonkorrak, soldata duinak eta oinarritzko errentaren alde: lan-erreformak bertan behera!**
- **Atxilotutako eta epaitutako pertsonen askatasunaren alde. Gizarte Amnistia.**
- **Zorra ordanitzeari ez, Europar batasuna eta FMI kanpora.**
- **Zerbitzu publikoen defentzan, pertsonen oinarritzko eskubide giza.**
- **Emakumeen hilketaren aurka: Bizirik egotea nahi dugu, bat ere ez gutxiago.**

CGT-LKNk borroka guztiak elkartzeko deia egiten du: pentsiodun, langabetu, berdintasunaren aldeko emakume, gatazkan dauden langile, Zerbitzu Publikoen alde (bizitza duina izateko ezinbestekoak diren baliabideak defendatzen dituztenak hain zuzen: Osasuna, Hezkuntza, Zaintza eta Dependentsia, ura, gasa, argindarra jasotzea, garraiobideak, komunikazioak, Unibertsitatea, hirien garbiketa, parke eta lorategien mantenimendua..) diharduten pertsona oro batu gaitzen etorkinekin, errefuxiatuen akde borrokan dauden pertsonekin, borrokatu izanagatik kartzelan daudenen alde borrokatu ere egiten dutenekin, etxe-kaleratzeen kontra aritzen direnekin, EBren eta Zor bidegabearen kontrakoekin, CETARI ez esaten diotenekin... Azken finean, bidezkoagoa, solidarioagoa den mundu baten alde dagoen orori egiten diogu deia, Mundu hori lortzea posiblea bezain ezinbestekoa dela deritzotenei.

Benetan gauzak aldatzeko indarrak metatzeko eta eraikitzeko bidaia irmo horretan, gure egiten dugu 2017ko maiatzaren 27an Madrilgo kaleak duintasunez eta errebeldiaz betetzeko aldarrikapena. Egun seinatu horretan, Estatuko herri guztietako zein atzeritik etorritako zutabeek Madril hartuko dute. Langileria osoari baita Estatuko herri guztietako herritar zein hiritar guztiei deitu ez ezik, bereziki galdegiten diogu Madrilgo herriari, antifaxista eta solidarioari, mobilizazio erraldoi honekin bat egiteko.

DENOK MADRILERA MAIATZAK 27AN

BORROKA DA BIDE BAKARRA!

